

# ANAITASUNA

**B I Z K A I A**

172 zenb.-1969 irailak 15. 4 peseta

Bengoetxe 33-b. Galdakano. Tel. 296 ta 397

## **EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA**

Amaitu barria dogu batzarra. Beharbada ez da hau ordurik onena, ba dakit, batzarraren luze zabala aztertzeko; baina ez hola sakontasun bila. Bakar bakarrik, «ANAITASUNA» barritu honetan elkarte hon en barri emotera.

Baiona-n egin dogu batzarra. Euskal Erri osotik batu gara han. Nok dino euskaldunok ezin dogula alkar ulertu? Gure alperkeria eta etxe zulozeria baztertuaz, bide bateratu batzuek artzen doguzanean, erraz. Ordu asko erre dogu alkaturik. Ez dira alperrikoak izan; beste edozein bilera legez? Ezetz uste dogu, ta ezetz hori probatzen ahaleginduko gara gerorantzean. Elkarte bizi bat egin dogulakoan gagoz. Ba dago Sekretaritzta bat, hori mobitzeko. Emongo dogu gerora honen barri zehatzagoa.

Irailaren 6-a egun inportante bat izan daiteke. Zetarako?

## **EUSKERAREN BATASUNA**

Euskeraren batasunerako. Batez bere batasun beharrezkoz hau lortzeko sortu dala elkarte esango neuke. Berbakea baten batasuna gizonaren obra da beti; eta batez bere gure erria, ez dogu ta bestelako estrukturarik geure alde. Elkarkideok batasuna bereiztasunak eta bizikeriak baino maiteago dogu, Euskal Erria Bizkaia baino areago. Uler-tzen da?

Eta batasun horretan sinesten dogu. Batasuna lortuko da. Euskeraren batasuna da elkartearen oinarri bat.

## **IDAZLEEN ESKUBIDEAK**

Idazlearen erraztasunerako. Idazlearen planteamentu oso bat ez badogu egin be, puntu asko ikutu da.

Euskal idazlearen profesionalismoa lortzera jo behar dogu gogotik. Diru aldetik, esate baterako, aldizkariaren aurrean, eta argitaldarien aurrean. Euskal idazleak zegaitik ez dau, bada, dirurik irabazi behar?

Beste puntu bat. Ba dago borondate oneko gizon asko; euskeraz ondo izkribatu gura dabe eta ez dakie zelan. Horrentzako eta danontzako zehatz mehatz gramatika legeak, ortografi arauak, iztegi bateratua, aditz bateratua, eta abar, eratu eta publikatu egin behar dira. Gaur bertan berba emon dabe elkartide batzuek hori egingo dabela.

## **ERRIAREN ONERAKO**

Idazlea erriaren zerbitzuan dago. Gure errian, gaur, behar gorri batzuk nok ez ditu ikusten? Hor dagoz ikastolak: textoak behar dabez; Euskaltzaindiak daroan alfabetatze kanpaina hor dago. Euskaldun barriak ezin doguz ahaztu... eta abar.

Beharkisun horreen aurrean zer egin behar dau elkarteak? Besoak tolesturik egon? Elkarteak, gaurtik bere laguntza eskaintzen deutse danei. Esan deiskuela zer behar daben.

Gure elkarte lanerako sortu da. Izana, ez izena, nahi dogu; ez gagoz inoren kontra. 28-k edo asten dogu elkarte. Baldintza bi eskatzen doguz bakarrik: euskera idatzia- ren batasuna, eta lan minimo bat, esaterako liburu bat edota 50 bat artikulu aldizkarietan.

**Juan Maria T., O. F. M.**



28 euskal idazle alkartu dira joan dan irailaren 6-an Baiona honetan Torrealdei jaunak reportaje honetan dinokunez.

## GALDAKANO

### TXIMILARREKO JAIEI UKO

Oraingo urtean Tximilarrak deitzen dan barrio edo auzunean ez dira ospatu beti ospatzen izan diran Done Inasoren jaialdiak. Hori zergaitik dan explikatzen nahi genduke: Tximilarrak hemen Galdakanon dago; U. E. E. edo Dinamitea deitzen dan lantegiak bere langileentzat egindako etxaldea dira. Orain U. E. E.-ko buruak erabagi dabe, alargunak eta jubiladuak bakarrik bizi diran etxeak utsitutea 50.000 peseta emonaz; eta langile txanda barri batez beteko dabez etxe uts horreek, entzun dogunez Santanderetik etorriak.

Hau dala ta, auzune guztiak erabagi dau jairik ez egitea, alargun ta jubiladuei egin jakiena txartzat emonaz.

### OSTERA BE JAIK

Galdakanon ospatzen diran jaiak, Santakrutze jaiak, gaitz aundi bat daukie: ez dira erritar jenteak antolatutakoak\* eta horregaitik geroago ta motelago doiaz. Gure ustez, gaztediak parte gehiago artu behar leuke jaiok antolatuten\*, erritarrago ta euskaldunago izan daitezkan.

### ETA EUSKAL JAIA

Okerren bat ez bada sortuten aurtengo ...euskal jaia Urrilaren 5-an izango da. Antolakisunen barri gehiago dakigunean emongo dogu zietztasun obeago bat.

JOSÉ LUIS EGUIREUN

## LEKEITIO

### ELEIZA

Bilboko Eleizbarrutian diran aldakuntzak gure erria bere ikutuko ebela zabaldu zan: Abade gazte bat edo bi etorriaz. Horren garrantzia gogoan arturik bai erriak ta bai abadeak, bakoitzak\* bere aldetik kandidato erreskada bana agertu geuntsan Gotzain Jaunari. Erriaren eskaria ehundazak\* izenpetuta egoan. Lehenengotan eztabaida batzuek izan arren, gure parroko jaunaren jokaerea erriaren lista hori onartu ta indartuz izan zan. Zer ete dino Gotzainak?

### ARRANTZALEAK

Beste munduko antxobaterik ez genduan izan udabarrian, eta oraingo atuneteak bere ez gaitu aberastuko karnata gutxi\* eta iparaldeko anaiekin burruka larregi. Batzuek Mediterraneoko urak urratutea asmatu dabe; ba daiteke beste batzuek euren atzetik jarraitutea. Han atunik ez, baina antxoa asko ei dago beintzat eta...

### IRAKASKINTZA

SEMABECA, S. A. Madrileko empresek artu dau Lekeitiko bigarren mailako ikastetxe egintza. 7. 818. 038 laurleko dirutza. Berau zabaldu arte Aiuntamentuak bigarren mailako Akademi bat jarri dau.

### ERRITARRAK

Xabier Gereño ta euskal jaien antolatuzaileei dei bat: asi dira errietatik zear, kittarra ta abots estitxuagaz, txalorik ugari irabazten Rosa Nobles, Mila Zendoia eta Konsuelo Erdozia, Lekeitioko iru neskatila. Deitu edonorako: erritarrak dira!

ZORROZUA

## ZORNOTZA

### Alfabetatzea

Urriaren beteko da urtea, Euskalzaindiaren babesean sortu zanetik lan aldia. Ta horrerri jarraituz, guk bere Zornotzan alfabetatzea asi genduan. Jente mordo (80 inguru) etorri zan lehenengo klasera. Berehala konturatu ginan, alfabetatzea zer zanik barik etorri zirala asko. Euskera ez ekienak edo gitxi ekienak ziran gehienak be.

Egunero euskera darabilen asko ez ziran etorri, «guk ba dakigu» esanez. Beraz\*, utsune aundi bat ikusten zan kontzientzi aldetik.

### Eratzailen utsunea

Egia esateko, Zornotza-n euskerari buruz oraindik planteamentu estatiko edo lokartu bat dago. Beharbada eratzailak izan eben erru bat: propagandarik ez egitea, alfabetatzearen zera aurretik azalduz.

Larogei horreetatik berrogei bat gramatika ikasten asi ziran, eta horretara jarraitu dabe, egunetik egunera gitxiagotuz.

Ogeitamar inguru asi ziran alfabetatze klaseetan eta amazapik amaitu. Astean klase bi emonaz, iru ilabetean dana emon balitz gaur egokiago deritxogu bai probetxurako ta bai iraupenerako bere.

### Ibilitako bideari begirada

Udea eldu danean, beste tokietan legez, guk bere opor aldiak artzea erabagi dogu, baina ez ibilitako bideari begirada sakon bat egin barik. Edozein enpresak egin ohi dau urtearen azkenean «balantzea»: Irabazi edo galduak ikusi, aurrera bideak gertatzeko. Izan be, alperriko lanetan ekiteko astirik ez dago. Ta gutxiago\* amesetan ibilteko eskubiderik. Gure ekintza-aren ispluan ikusi gara eta ez gagoz, uste genduan legez, guri ta eder. «Itxusi nago, begi bakar eta erren, baina neu naiz».

Errealidadea ezagutzen dauana, naiz ta tristeza izan, aurrera egiteko bidean lehenengo pausoa dago.

### Euskalzaindiaren babesean

Aste honetan nagusitu diran ideia ardatz batzuek aipatzekotan\*, hau esan beharko genduke: jokabide planifikatu bat eroan behar dogula, eta ez bakarka ekin. Euskalzaindia haintzat artu behar dogula, bere babespean eta laguntasunagaz jakatuz. Gure izkuntza gaurko mundurako gaitu behar dogula, bizi nahi badogu. Beste errien aurrerapenak geureganatuz, geure erria haintzat artu eragin behar dogula munduko beste errien artean.

### BOLAK ETA BOLARIAK

Erriaren itzelezko burrundadea etaraten dabe bolak eta batez be bolariak. Ingu-ruetako guztiak alkartuten dira auzo bakoitzean jaietan, ze erriko txapelketa auzorik auzo antolatuten da. Bernagoiti-tik S. Antonio-ra, Boroa-tik Etxano-ra, hemendik S. Bartolome-ra et. a.

Neguan eguraldiagaz ostoporik izan ez

daiten, Boroa ta Galizianoen auzuneak, daren artean, teiltua ipini deusie euren bolalekuei eta ez teiltu utsa bakarrik, dekorazio ta guztiz bere bai.

Bolatoki honek ta lehendik zirane-kaz (S. Antonio eta S. Bartolome), lau dira erriaren legorpean dagoenak.

Ig. J. ESPINOSA

## BILBO

### TRAFIKOA

Bilbo-n gaur daukagun problemarik aundienetarikoa trafikoa dugu. 1936-eko gerrea amaitu zanean Bilboko automobilien matrikulea 12.000 egoan eta orain 134.000-an. Orditik hona ez da Bilbo-n egin ez zubi barririk, ez gure urian sartzeko bide aundirik, Begoñakoa izan ezik. Hemendik dator trafikoa ziskoa.

Zure pazientzia zelakoa dan neurtu nahi badozu, irakurle, zatoz Bolbora ta pasatu zaitez Aiuntamentu aurretik.

Orain parking batzuek egiten asi dira eta Salve-ko zubia. Baina zein astiro, jaunak; problemen aurretik joan beharrean, atzetik doa Bilboko uria. Horrek amaitu orduko, beste 20.000 automobil egongo dira, ta problemak zutik\* iraungo dau.

### BEGOÑA

Esan dauzkue Begoñako Basilikan Ama Birjinaren egunean, aurreko urteetan baino jente gutxiago egon dala.

Zelan ez eleiz horrek euskal kutsurik ez badauka? Euskaldun batek ez dau han berotasunik aurkituten. Ots dago guretzat.

Ez dago ez euskerazko mezarik ez sermoirik. Kasu onenean, abestiren bat euskeraz, itxura gordetearren edo.

### ARTXANDAKO TUNELA

Noizko Artxandako tunela?

Bilbok behar dau zabaltasun aundiagobat, umeentzat parke gehiago, etxe merkeagoak.

Hori guztia lortuko litzake Artxandako tunela egin ezkerero. Bost minutoan Asuako balle aundia aurrean eukiko genduke.

Jakina, hori egitekotan Bilbo barruko solarren jaubeak galtzen urteago leukee, baina ez da begiratu behar batzuen eskulaskinoari, erriaren onari baino.

X. GEREÑO

## BAKIO

Igaro dan Abustuaren 20-an, «Kiroleta» alkarteak eratuta, jai polit bat izan genduan.

Parte artu ebenak: Lourdex Iriondo, Epetargiak, X. Lete eta Mikel Laboa.

Entzuleen gustukoa izan zan, baina nik akats batzuek bilatu nebazan.

Lehenengokoa: betiko abestiak abestu ebezala. Ahin famatuak diran abeslari horreek, abesti barriak egin behar leukeez, batez be, mito bat izatera eldu ez daitezkan, eta nik arrisku hori ikusten dot.

Bigarrena: erritar gutxi entzuleen artean, ia danak udalditarrak edo beraneantek. Nor errudun? Eratzailak?... Abeslariak?... Edo giroa?...  
Y. ARRIETA

«Anaitasuna» ba dator barriro be jende\* tartera. Ixilune bat izan dau, ixilune alperriko bat, munduaren betiko ezereko utsuene tristean galdu dan ixilune ustela.

Baina, zorionez, ez gara ixilduko; bagoiar aurrera. Ta agertuko gara indar gaztez armauta kaleetan, baserrietan, euskal errietan...

Nahi dogu jendeagaz nahaztatuta izan, gizonak esnatu\*, bihotzak zabaldu ta gartzaren egonezina ezarri; buruetan ideia ernegarri batzuek sortu, ta oihu\* ta zarata egin, atariko txakur atezainaren gisa. Nahi genduke erritar jende humilari entzun, errespetuz entzun, ta kontuan izan bere negarrak, ta kasu egin bere desio baztertuei, ta gure errebista hau erriagandik jasotako mila ta mila zeresanekin bete.

\* \* \*

Aldizkari honegaz gura genduke batez bere alfabetatze taldeekin oso bat eginda ibili. Euskaldunik gehienok euskeraz irakurtzen ez dakien ezkerro, aldizkari honek be dato hori kontuan izanaz jarraituko deuto lehenago asitako lanari. Hau da, alfabetatze taldeekin era bat batera ibili nahi genduke, eurekaz batera, artu emon etenbakoan.

Era berean ikastolekin, edota ikastoletan dabizan urneen guraso ta senideekin. Horretara, ume ta andereñoekin batera, ume horreen inguruan diranekaz soka bat egin geinke, guk eurei lagunduz, ta eurok guztion aldizkariari.

Bardin esan geinke beste mila eratarako kultura bideekin. Azkenez, euskeraren batasuna il edo bizikoa dogun ezkerro, gure aldetik, guri tokatzen jakuzan pausoak emotea gura genduke, ahal dan modurik egokienean.

Ta, horretarako, lehenengo ta behin bizkaieraz batasun bat egiten saiatuko gara. Jakina danez, ez dogu egingo guztion gusturakoa, ezta mundukorik onena bere; baina, ahal dogun zientziarik argienagaz egiten ahaleginduko gara, orain arte bezala\*. Gainera, bizkaierazko batasun hori euskeraren batasun osoari begira egingo da beti be.

\* \* \*

Eta lana egiten asten gara, baina izugarrizko ames ta pozagaz. Jende langilea bihotzez bedeinkatuko dogu, ta jende alperra, errezeptuz, baina madarikatu egingo dogu.

Joan dan udabarrian euria ugari ta aberatsa izan da; orain zelaietan bedarra ugari dago. Segalariak behar dira asko ta presituak... ez galdu denborarik\*, hauxe bai da\* garai egokia, buru onez ta animo abeagaz aprobetxatu behar doguna.

«Anaitasuna»

**Osotasun kontzientzia**

Soziologiataz iru-lau artikulua erreskan aterako\* ditugu, ta zehatzago esateko, kulturaren soziologiataz. Gaiaren izenburuak seinatzen dauan bezala\*, gure ustez ez dago banatzerik ez euskal kulturaren lehengoa ta ez geroaren analisisa gure gizartearen estrukturaren analisisagandik, gure gizartea osotzen daben giza-klaseen analisisagandik, giza-klase horreen arteko etsaigo\* ta alkartu-ezinagandik.

Gure artean bokazinoz eta profesinoz kulturaren zabalkunde ta indartzean diarduen artean, holako «osotasun kontzientzia» bat erretzen doala ikusteak pozez betetzen gaitu, ta gure kulturea ta erabat eri osoa zerbait benetan berbiztuko dogulakoaren esperantzaz bete be egiten gaitu.

**Kulturea definitu nahian**

Kulturearen definizio bat emoten saiatuko gara, azalduko doguzan ideia guztiak alkar lotuko dauzan aria bezala\* izan daiten. Guk kultureataz emongo dogun definizioa mundu guztiarentzat baliokoa dala demostratzeko usterik ez daukagu, hori zeregin zaila baita\*, benetan. Kulturearen definizio bat arrazoiz demostratzea ze arazo latza dan kontu artu daigun, esan behar dogu amerikatar soziologia egile bik ehun definiziotik gora aipatzen\* dituela. Ta nahasmen\* hori aunditzeko, kultura itzak beti be zibilizazio itza dakar lagun. Eta berba bi horreek bata bestearekin konparatuz azaltzen dabez.

Lehenengo ta behin esan behar dogu, kultura bat bai teoriku ta bai praktiku jakituria moltzo bat dala. Definizio hau bai antropologoentzat, bai kondaira\* egileentzat ta bai soziologoentzat baliokoa da. «Kultura mota» ezbardinei mugak eta inguruak jartzeko ondo datorkigu, eta gizarte baten bizitza guztia lotutzen dau: bai etxe-egikera, janarietako gustu aproposak, teknika berezi\* bat, siniskera ta mito partikular batzuek, izkuntza nahiz dialekta bat, amodiozko artu-emon berezi batzuek, t.a. Sentidu honetantxe esaten dogu Euskal Kulturea, Espainiar edo Alemandar kulturea esaten dogun bezalaxe\*; ta, jakina, arrasoirik aundienarekin. (Ikus J. C. Barojaren liburuak).

Kultura izaera berezi guzti honeek, lurralde batean bizi diran gizonen artean sortutakook izaten dira soziologia ta kondaira\* egileak aparteki ikasten dabezanak.

Izaerarik konplejuen ta aberatzen horreek osotasun bat lez ulertu behar doguz, dialektiku bidez alkar eragiten diran aurretiazko totalidade horreetan oinarriturik. Jakina dan lez, alkar eragiteko horrek milaka posibilidadak ditu, laguntzaileen aldetik asi ta etsaien\* arteraino.

Baina guk ez dogu kulturearen definizio hain zabal hori artuko; bakar bakarririk, alemandarrak Diltheygandik asita, oker ez banago, «Weltanschauung» bizitza ta munduataz ustea «deritxoenari lotuko gara. Hau da, filosofia, elertia\* edo politikea ikusten doguz gizonen problemarik behinenenganako\* argi bide bezala.

Argi dagoan legez, azken definizio hau ta lehengoa ez datoz bat, naiz ta dagozan kultura konkretu bakoitzegandik alderdi bi horreek alkarrengandik banandu ezin izan. Mundu ta bizitzeataz diran usteak ez dira ugariak ta bai ostera\* kultura motak\*, ta milaka dira. Gure zeregina hauxe izango da: kultura mota\* berezi baten barruan giza edadura\* ta munduataz diran usteen arteko alkar eraginak analizatu. Itz batean esateko, kultureak (mundu ta bizitzeataz usteak) eta Euskal Erriko gizarteak alkarrekin daukeen zerikusit ta eragina izendatzen ahaleginduko gara.

Y. TEILAGORRI



# ANAITASUNA

amabosterokoa

1

Euskalerriko Anaia Txikarrak argitaratua

Durango-n, Intxaurren 1

Zuzendaria: ANGEL CELAYETA GUIASOLA

Idazkolaria ta Banakolaria: Bengoetxe, 33-b,  
GALDANKANO - Tel. 396 ta 397

Banakoa: 4 peseta

XVII urtea-172 zenb. 1969, Irailak 15

D. L.: BI 1.753-1967

Impreso en la IMPRENTA IDEAL - Bengoeche, 70  
Galdácano

# Billaro - Areatza

## JAIALDIA

Abustuaren 31-an, eta goizeko 11,30-etan, Gipuzkoako «EZ DOK AMAIRU» taldekoak ezkeini euskuen Txirpis Zinema euskal abestien jaialdi bat.

Sarpide guztiak aurreko egunetan saldu ziran; eta jaialdia asi orduko, saloia jendez gainezka egoan.

«Ozkarbi», J. Lekuona, Mikel Laboa, X. Lete, L. Iriondo, B. Lertxundi, Txalparta, Txirula ta Alboka soinuak. Hau izan zan eskeini euskuena.

Jaialdi honeri buruz, gendearen eretxiak honeek izan ziran: ederra izan zala benetan, abeslariak momentu on baten dagozala, baina gendeak entzun nahi ebazan abesti batzuek («Egun da Santi Mamina») ez zituela kantatu. Zergaitik?

Abeslariekin itz egin genduan, eta euren erantzuna hau izan zan: ez dogu horretarako baimenik lortu ahal izan.

Holan eta guzti bere, gendeak pozik urten eban, eta beste holako jaialdi gehiagoren eske.

## PELOTA TXAPELKETA

Peña Billaro II-gnak. antolatuta pelota txapelketa komarkala euki dogu gendearen gustukoa.

Areatzako gendeak eskatu deusku «ANAITASUNAREN» bidez antolatzaileziorionak emoteko, eta datozen urteetan bere holakoak egiteko.

## JOTA DANTAZAREN TXAPELKETA

Aurtengoa frakasu bat izan da: lau bikote baino ez dira agertu.

Zer jazoten da Arratia-n? Albokari ta pandero jatzaileen ibar honetan galdu ote da jota-dantzarako zaletasuna?

## ORKESTA BARRIA

Areatzako gazte talde batek euskeraz kantatzeko orkesta barri bat sortu dau. Lehenengo, izena ipintea zan beharrezkoena, hau da orkestea bataiatutea.

Gazteok, «lehen euskal iztegi bateratua», artu dabe ta euskera batuko izen baten bila ibili dira. «Elkartuak» izena da gehien atsegin izan jakena.

X. GEREÑO

# Mallabia

Oiz mendiaren barrenean, urak Deba parterantz doazen sakonean aurkitzen da Mallabia erritxoak. Abustuko «Andra Marietan» izan dira bertako jaiak; oso trixteak entzun dogun legez, gaztediak ez ei dau parte artu ta.

## IDI PROBAK

Egun bitan amabost idi parek artu dabe proba jokuetan. Berriz-ko Benigno Azpirtarte-k, «ANTZUAK», irebazi zituan 34 unteze eginaz. Bere semea ta Luiz Txikia karreteru. Gutxien egin ebana Bolibar-ko «Anittu» famatua izan zan, 5 unteze eskas eginaz, bera ta Zabala karreteru zirala.

Proben organizazioa ondo jua zan; denbora ona izan eben, ez zan eztabaidarik izan eta gabaz be argi ederrak egozan ipinita. Altabozetatik Martzel Goikoetxek, Aiuntamentuko kontzejalak, berba egiten

eban euskeraz eta erderaz. Zorionak, Martzel!

Domeka gabaz 500 persona egongo ziran ikusten, eta 15 korredore trabesak egiten. Idiak eta gizonak probatu ziran.

## ZENGOITTE-ko JAIK

Mallabi-tik eta Berriz-tik gora Oiz-era igoten badogu, «Zengoitte» izeneko auzune batean alkartzen gara, erriz mallabitarra eta alizaz berriztarra. Joan zan ilaren 31-an, igandean, izan bertako erromeri eguna, Mallabi-ko Gerediaga Alkartekoak eratuta.

Jende asko izan zan; Enbeita aita semeak egon ziran bertsotan, Mallabi-ko «Gazte Alai» ezpatadantzari taldea, ta Zaldibar-ko «Gau Txoriak» zortzikotea (lau neska ta lau mutil) kantari. Aurrera «Gerediagararrak»!

## FABRIKA BARRIA

Entzun dogun legez, «Goitondo» deritxon inguruan fabrika barri inportante bat doa. 32.000 metro kuadrado erosi izan dabez eibartar batzuek, kooperatiba antzera gero lantegi bat egiteko. Orain behar diran baimenak Madrilera eskatu dira. Eta obrak egin ahal izateko terrenok analizatzen dabilte eta baita zenbaiterainoko ura dauken neurtzen bere.

Lurjabe saltzaileak «Gotondo», «Etxebarri», «Premin» eta Arana jauna izan dira.

Ondo doakigula!

«TATANA»



# Eleiza Gaurko Munduan

## Elizearen Eriotzea

Ikusita egoan. Holantxe izan behar eban. Jaungoikoaren eriotzearen ondoren, Elizearen eriotzea. Horretan ez dago arri-  
tzekorik. Logika zuzena besterik ez.

Mingarria? Zegaitik? Esnaturik\* amesetan bizi, edo eriotzearen itxurako lozorroan egon, edo benetan il..., zer izan leiteke obeagorik?

Ez da gaurko esakerea: «Eriotzearen predikatzaile». Abadeak ei ziran horrelakoak, Nietzsche-k esaten ebanek. Gaurko abadeak, aurreko «eriotzearen predikatzaileen» eriotzea predikatzen dabe. Ez da bardin.

Erlejino bako-erlejinoaren ondoren, elizarik bako Elizea.

Non gagoz? Zetan gabiltza? Utopia utsean?

Zeharka behinik behin, begiratu daigun azken aldiko gertakizunen mundu aldera. Eta lehenengo, gure kaleetako liburute-gietan ikusten diran liburueta. Izenburuak irakurri daiguzan: «*Tempête sur l'Eglise*», «*Une Eglise en état de péché mortel*», «*Demain, une Eglise sans prêtres?*», «*Pourquoi je pars*», «*Ce que je ne crois pas*», «*L'Eglise rebelle d'Amérique latine*», «*La rue dans l'Eglise*», «*Bible ou Révolution*», «*L'Eglise contestée*». Gero, gogoratu daiguzan gertakizun batzuek: Suenens Kardenalaren agiria; berak esan dituanak beste norbaitek esan balitu, anatematizatu egingo eben nioski\*. Camilo Torres be abadea zan... eta gerrilero bezala\* il zan; zegaitik? Helder Camara, elizako «kardinal gorria»,... beste utopiko zoroa! Hain ezagunak ez diranak, hor dagoz: Françoise van der Meersch monjea, Robert Devezies, Aita Cardonnel, eta beste hainbeste. Pariseko ikasleak sortu eben matxinada haretan, zenbateraino ez ziran sartu kristinauak? Irlandako gorabeheretan zer egin dabe katolikuak? Zer egin dabe aspaldidanik gure arteko abadeak? Bestalde, nok ez dau ezagutzen «*Echanges et dialogue*» deritxon taldea? Lehen, Frantziako gauzak zirala ta, goitik behera begiratu ohi ziran horrelako gertakizunak. Gaur, Frantzian ez-ezik, mundu guztian zehar entzun eta ikusten ditugu jokaera eta esijentzia bardinak.

Zer eskatzen dabe? Entzun daigun eurretari-ko batzuek dinoena, eta Ives le Vaillant-ek «*Le Nouvel Observateur*» aldizkarian bildu\* dauana: Zer nahi dogun? Elizearen eriotzea nahi dogu! Lurrera datorren jauregi bat da Elizea. Antzina\* Jerusalemgo Elizea bezala. Elizea jadanik\* dago ilda, nahi edo ez. Miloika dira gizakien artean, euren bizitzeari dagokion\* jokabide garrantzitsuenean Elizeak zer

esatekorik ez daukala uste dabenak. Ordenabide bat zaindu baino besterik ez dau egiten Elizeak; diruaren indarra daukenak babestu; folklore zerbait lagundu. Gure laneko lagunak eritxi horixe dauke. Elizea, instituzino bezala, bere influentzia ta indarrekin, il egin da. Guk nahi doguna? Orearen\* orantzea\* izan dadila; izkutatu\* dadila barruan; gizakien kontzientzia eta itxaropena izan dadila; beste pentsamentu barik, bere osotasuna eta askatasuna lortzeko burruka gogorrean ari\* diranekin bat izan dadila. Jesukristo, iraultzaile\* eta oztopotzaile bezala, galdua izan zan. Gaurko Elizeak kezagarri izan behar leuke, eta zapaldurik dabilzanen itxaropenaren aitorle\* alaitsua. Horretan ez dago ezer barririk. Ebanjelio utsa da. Elizeak oster\*<sup>a</sup>, gaur, irakasten dauanaren kontra jokutzen dau. Eliza horixe da il behar dauana, Jesukristoren Elizea biztu daiten\*.

Eta bukatzeko\*, galdera\* bat egingo geunskio Daniélou Kardenalari: «Nortzuk dira sinesmenaren iltzaileak? Elizea ilda aurkitu dabenak eta biztu nahian dabil-tzanak, ala ildakoagaz jolasean jarraitu gura dabenak?»

MARKOX AMUNDARAIN

## Zergaitik ixildu, Zirarda Jauna?

Bilbo-ko Obispo zana, Gurpide Jauna (G. B.) il zanean, Zirarda Jauna bialdu euskuen Erromatik. On Jose Maria Zirarda Bilbora etorri zanean, udabarriko aize bolara fresku bat lez agertu jakun. Izan be Zirarda Jauna gizon argia izanaz gainera, gazte ta ausarditsua da. Bizkaiko eleizeak\* indar barri baten laguntzak dakarren poza artu eban, ta orain be halan sentitzen dau.

Baina gure aldizkari honen orrialdeetatik preguntatu beharrean gagoz beste milaka gizonak egiten deutoen pregunta bardina: «Zergaitik ixildu?»

## AGINDUTAKO PROMESAK

Bizkai ta Euskal Erri osoa ikaraz jarri eben pasatu dan apirilean gertaera trixte ta latz batzuek. Ta orduan itz egin zendaun, baina zeuk esan zenduan lez geroago gehiago eta sakonago egin behar zenduala. Hona hemen zeuk agindutakoa: «...arazo guztiok sakonetik astertzen asteko agindua emon dot. Asko lagunduko deuskue honetarako, egunokaz eldu jatazan gai ugari ta egokiak...» (Bizkaiko Obispaduko Boletina, 226-gna., 296-gn. orrialdea).

Zuk eskatzen zenduan legez, guk uste dogu gure «barruak baretu dirala». Ta honetara, esan beharrean gagoz «zergaitik ixildu». Gure ustez, ta honexegaitik esa-

ten deutsugu, mundu guztia zuk esanari begira dago, zu gure sinesmenaren ardura-dun behinena zaralako.

## PEREIRA ABADEN JAUNAREN ERAILTZEAREN AURKAKO REAKZINOA MUNDUAN.

Pereira abade jauna, Refice-ko katoliku gaztediaren kapeilaua izan zan, eta H. Camara obispoaren laguntzailerik behinena\*. Brasil-eko jauntxo indartsuen batzuen buru gaiztoz eta arma okerragoen aiherkundez ilda.

## AITA SANTUAREN ASARREA

«Aita Pereiraren eriotza latzgarriaren barria penaz beterik artu dogu. Aita Zerukoari eiozue otoitz, bere zeruan gorde daian. Bere senideen samintasunean parte artu nahi dogu, ta Brasil-eko erriari ain eriotza triste honekin mindurik, gure be-deinkazinoa». (laburpena da)

## «LA CROIX» —eren AGIRIA

Frantzia-ko egunkari\* ospetsua dan «La Croix»-en eta 40 jaunek izenpeturik agertu zan agiri bat, eriotza hori dala ta.

Euren artean Riobé, Orleans-ko Gotzaina; Huyghe, Arras-eko Gotzaina, ta protestanteen arteko jaun entzutetsu batzuek et. a.

Beste gauza batzuen artean hona hemen zer dinoen: «Aita Pereira-ren eriotzak argi ta garbi aditzen emoten deutso mundu zabal osoari, ixilean eta biolentziaren indarrez edozein askatasun bide iltzen daben talde batzuen jokabidea».

«Gotzain ta abadeak, dinoen, dira bakarrak militar gobernamentu honen menpean, pobreen alde berba egin daikenak. Eta, banaka banaka, abade horrek bere ixilazo egiten dabez».

## BRASIL-EKO GOTZAINEN KONFERENTZIAREN PROTESTEA

Brasil-eko gotzain guztiak batera aditzen emon eben, Pereira jauna il dabenak ez dabela eraildu «beroaldi» batean, grina gaiztoz, ezpabe ez politiku arrazoi ots batzuek aitik. Honantxe esaten amaitzen dabe: «Kristinauak garean aldetik, Kristoren ta done Estebanen irakatsiari jarraituz, eraileentzat parkamena eskatzen dogu, Kristoren berbak esanez: «Ez dakie zer egiten daben». Baina asarrez gainezka protestatzeko eskubidea daukagu holako ekintza gaiztoen kontra, ta barriro inon egin ez daiten».

## HELDER CAMARA-REN ITZAK

Ileta meza egunean H. Camara gotzainak itz egin eban eta beste gauza batzuen artean esan eban: «Eleiza honetan zin\* egiten dogu gure erriaren gorputz eta ari-mazko askatasunaren alde».

Eta erri osoak, aho batez esan eban: «Zin\* egiten dogu».

(Vida Nueva-tik)

# Jakin eta Ekin

## Bittor Egurrolarekin Alkar Izketan



Euskaldun abeslari berrien artean, Bittor Egurrola dogu lehenengotariko bat.

Orain 25 urte Gernikan jaioa, bere kittarea artu ta urte batean Euskal Erri osoa ibili dau: 55 ekitaldi.

Euskaldun abeslari askoz legez, seminarioan (Derion) egoan eta han asi zan solfeoarekin. Gero handik urten eta **Zienzia** Sozialak ikasten dauz Deustoko Unibersidadean. Bere ikaskisunak ordainduteko, klaseak emoten dauz (Literatura, Prantsez, eta latin, batez be).

Asi gaitezán, ba, galderak\* egiten:

\* \* \*

—Batzuek esaten dabe ez zaituela ulertuten. Zer zara zu, Bittor?

—Nere kanta baten argi esaten dot zer nazen:

“Ni ez naz artista  
ni ez naz gitarra,  
ni naz erritarra...”

Ez etorri nigana arte eske  
ez etorri nigana berba politen eske,  
nire kittarra ez da nire kittarra:  
nire kittarra ta nire erriaren bizia,  
nire erriaren ritmoa”.

—Argi dago, ba, Bittor, zuk ez dozula kittarra artu, ez zure burua jasoteko, ez artea zabaltzeko. Zuk mensaje bat, zer esan bat daukazu, ta kittarra bide dala, erriaren artean zabaltzen dozu. Baina, zein izango da erriaren erantzuna.

—Nik, gaztedian eta geroan sinesten dot. Hau, nire beste kanta baten esaten dot:

“Gero barri bat,  
gero gazte bat,  
gero guk eginda geroa gurea da.  
Privilejioak baztertuaz,  
euskal gizarte barri bat...”

—Orain, Bittor, beste galdera\* bat: Batzuentzat bakea da lortu behar dan doharik\* nauziena. Holan da?

—Bakea, gehiago barik, ez da nahikoa, jurtzian finkatua\* ez badago. Hau bere nire beste kanta baten esaten dot:

“Bakearen izenean  
baltzak ez dira personak,  
erriak ez dira erriak,  
izkuntzak dialektoak dira,  
personak numeroak...”

Arrasoia daukozu Bittor. Horrelako bakerik ez dogu nahi. Gu, gizonak garan aldetik, kontzientzi bat daukagu, ta kontzientzi horrek ezin dau bakean egon jurtziazirik ez badago. Eta orain, filosofia alde batera utzita, jaitsi gaitezán gai praktikoagoetara. Hara:

—Guri, euskalduntasuna zabaldu nahi dogunoi, universalak izan behar ginakela esaten deuzkue. Zein da zure eretxia?

—Beste kanta baten itzekin erantzungo deutzut:

“Badakit universalak  
izan behar garala  
baina euskalduntasuna ta  
euskera oinarriaz...”

—Euskera aipatu\* dozu zure kanta horretan, Bittor; esan eidazu, orain, zelan dagon euskerea Gernikan gaur egun.

—Aurrera doa. Ikastola bat zabaldu da, umeentzat. Nauzientzat, alfabetatze kanpaina bat asi da.

—Eta praile ta monjen kolejoetan sartu da euskerea?

—Ez, eta ez dauke parakasinorik.

—Orain, beste galdera\* bat: euskera batuari buruz, ezta baida aundiak sortu dira. Batzuek, euskera batuari kontra egiten deutse. Zein da zure eretxia?

—Ondo ikusten dot euskera batua. Euskera batu hori zabaltzen ahalegindu behar litzakez ikastolak, diskoak eta errebistak. Honei jarraituz jendea\* gero asiko da itz egiten euskera batu horretan.

—Orain egingo deutsudan galdera, Bittor, abeslari zaran aldetik izango da. Non artu zaitue ondoen?

—Ondarrun eta Eibarren.

—Eta Parisen?

—Nik uste neban baino obetuago. Edarto!

—Zeintzuk dira zure kanta txalotuenak?

—“Nire eskaria”, “Andereñoa” ta “Gernika”.

—Zelan saltzen da zure lehenengo diskoa?

—Euskal diskoak ez dauke saltze aundirik. Holan eta guzti bere bi mila inguru saldu dira.

—Zenbat kobretan dozu jaialdietan kantatuteagaitik?

—Ikusi behar da zertarako dan batzen dan dirua eta zenbat balio daben sarrerak; baina ez naz garestia.

—Zure asmoak?

—Bigarren diskoa egin. Baina batez be, nire estiloa topa. Lehen esan deusut jenteari, nire erriari zer esan bat daukadal, ta nahi neuke nire mensaje hori ahal dan egokien zabaldu, nire ondoen jatorren moduan.

—Nobiarik?

—Ez oraindik...

—Amaitzera goaz. Zuk nahi dozu erriari gauzak esan. Orain, eta zure kittarraren laguntza barik, esan eizu zer edo zer “Anaitasuna” bide dala.

—Bai, eta pozik bere. Jaialdien antolatzailei dei berezi bat: “ANAITASUNARAKO” arpedun barriak jaialdietan egiteko. Bizkaitar guztiak irakurri behar dabe “Anaitasuna”.

Honeek izan dira Bittor Egurrolakin euki doguzan galdera-erantzunak. Euskalduntasuna zabaldu behar dogu nun nahi, baina kontuan artu daigun euskalduntasunaren neurria euskera dala. Euskera barik ez dago ez euskalduntasunik ez Euskal Erririk.

“Txillardegik” esaten dau bere liburu baten, eta arrasoi aundiarekin “euskotarrak” itz hori madarikatu behar dogula. Itz hori asmatu da euskera ikasi nahi ez daben gizon alperrak justifikatzeko. Ez doguz behar “euskotarrak”, euskaldunak baino.

Eta hemen bizi garan guztiok euskaldunak izan ez arte, jarraitu daiela batzuek kittarrakin, besteak bertsoetan, ikastoletan, alfabetasinoan, euskera zabaltzen, turik, aurrera!

X. GEREÑO

## D. Fermin Irigaray “Larreko”

Aurtengo urte honetan gizon ospetsu baten ehun-urteurrena aipatu behar dogu: D. Fermin Irigaray, Nafarroako sendagile aparta izandakoa. Oraintsu, ilbeltzaren 25-an beteko ebazan ehun urte, Jainkoak bereganatu ez baleu. G. B.

Gizona joan arren bere, bere nortasunaren itzala ez da joana: iraupen osoko zorian sartu dala esango genduke.

## Sendagilea

Madrialeko Ikastetxe Nagusian egin ebazan ikasketak. Gero Bidasoan eta Iruriten egon ondorik, Iruñara joan zan ospitaleko zuzendari. Gain gainekeo mailara eldu eta bera izaten zan gaixo jendearen operazino aundietako sendagile nagusia.

## Idazlea

Eta bere lan guztien artetik idazle gainera. Nafarroa aldeko ta bera ezagutu ebenei D. Fermin Iragaray entzuten jake esaten, baina eskritorren artean "Larreko" izenagaz ezagutzen da, berak izen hori erabilten baiteban\*. Bere napar euskera garbi eta errikoian idatzirik idazlan asko ta urte askotan euskal aldizkari ta egunkaririk gehienetan argitaldu ebazan: Euskaldunak, Gure Herrian, Argian, Herrian, et. a. Ez litzake lan txarra izango, idazlan guztiok alkartu ta batera argitaratuko balira.

## Bizkaia-Nafarroaren senidetasuna

Probintzi bi honeen artean hainbat kilometro egon arren, badauke alkar senidetasun bat baino gehiago. Ta beinena\* euskera izango da, dudarik ez.

"Larreko"ren ehun urteurrenean senidetasun hori sendotu nahiez, bizi ziranean Enbeita ta "Larreko"k izandako artu-emonen barri emoten dogu:

Irigaraytar Pirmin jaunari Iruñan.

Ene biotzeko adiskide maite ori, agur:

Zure idazki maitekorra bere garai onez niganatu zan; berakin baita aur tipiarentzat ixentauriko Gutuna bere: nere sendiko guztion ixenian anai eskar Jaun maite orri. Itziartxo gure aur tipienak 23 urte ditu; beste seme-alabak zarragoak dira: bai ditut ilobatxoak bere, guztiak osasuntsuak Goiko

Jaunari eskerrak.

Ona emen gure Itziartxuk zutzaz diaraustana (onek itz lauz diraustana, nik neurtitzera itzulita):

Irigaraytar Pirmin jaun ori  
nik ez dot iñoiz ikusi,  
nire begiok ez dabe ezautzen,  
biotzak baña, bai noski.  
Berakin bere sendian diz-diz  
dalarik zorun eguzki,  
Urtzik zeruan sartuko al dau  
bere soñeko ta guzti...  
Iru ogeitan laurat nijua,  
urbil emaztea ere,  
geureak zazpi seme-alaba,  
ilobatxoak sei lore;  
geure zerutar izkuntza leunez  
goxoki mintzatzen dire.  
Euron otoitxo xamurren adi  
Iosu zerutik begire;  
au ikustean, zorun ustea  
sartzen zait biotz erdire.

Nere sendiko guztion gorantziakin batian artu eizu egiz maite zaituan adiskide onen biotza.

*Enbeitatar Kepa.*

Muxika, 1929 gn. XII-28-an  
Irigaraytar Permin Jaunari  
Iruñan.

Ene adiskide ta ongille on zintzo ori, agur:

Illa onen 24-an egindako zure idazki maitekorra, Bakal-dun-sari politakin batean, neregianatu da:

Imanol alai dago,  
Itziar, atsegin;  
Edurnek pozan-pozez  
ez daki zer egin;  
irurok ere otoi  
gogoz... erdi berdin,  
orain, gero ta beti  
zoruntsu izan dedin  
sendi maite orrekin  
Irigaray Permin.

Biotz biotzetiko eskerrak iru onen eta nere emazte ta nere izenean. Imanol Durangoko Iosulagunen ikastetxetik gabon jaietarako etorrita emen arkitzen da. Iosulagun izateko asmotan dabil; Jainkoak naiko al du elbururaino irixtea? Zeu poliki asko bizi zerala? Poztutzen naiz zu ongi arkitziaz; ni ere poliki nabil, zainduta, baiña naikua ondo 51 urtez aurrera dijuanarentzat, batez ere gogo gauzetan geruago ta kementuago nabaitzen det nere biotza.

Euzkozaletasunian iñoiz otzikararik (ez da antzik ere) gabe jarraitzen dut, zu bezela. Guztia Urtziren aintzarik audiene-rako izan bedi.

Nere sendi guztiaren gorantziak eta biotz agurrik xamurrena, eta:

Jaun zintzo maitagarri  
ona zeralako,  
urtezar amai-ezti,  
urteberri gozo,  
sendi maite orrekin  
zoriontsu oso  
izango al dituzu  
aizkide Larreko.

Olantxe opa deutsu

*Enbeitatar Kepak*  
Kopiatzailea: A. Apat Etxebarne

## "Betiko Arriskuak"

Ba dira urte batzuek, folklorekeriak erazoaldi gogorra artu ebala euskal gaztediagandik. Euskal aldizkarietan hainbat artikulu agertu ziran, beste arazo sakonagoetatik aldunduten gaituan plaga hori behin betiko bere lekuan jarteko. Izan be, onartu ezinekoea da bizi nahian dabilen erri baten lepotik barre egitea. Hauxe da jauntxo batzuen erria aditzeko era: "Erri bat daukagu, dantza, bertso ta abesti zoragarrik orni-duta". Gure erria paradisu bat da, nonbait. Beste mundukoa, beraz\*.

Gaztediak, dirudiane, ez dino: "erri bat daukagu" (Oinen azpian?), "erri bat gara, baino". Erri bat gaur "bizi beharrean". Abesti ta dantzak lehenago bizitzaren aparrak dira. Guk geure arazotzat artzen dogu erria, erria eginkizuna dalako beti be. Aurrera eta gora jotzen dogun neurrian biziko gara.

Gure erriko gazterik jatorrenak ondo ulertu dabe folklo-rekeria zer litzaken. Baina jator honeek oraindikan gutxi\* dira. Honeek euskal kultura eginkizunaz eta gainetiko beste arazoekaz euren aragi egin dabe. Gure erri jokabidean "bi-tasun" edo dualismo batetik alde egiten erakusten deuskue. Dualismo horretan asko eta sarritan jausi gara. Alde batetik neu neure profesino eginkizunak edo famili gora beherakaz, eta beste aldetik euskal arlo ta errikide arazoak, noizean behingo aize bolaretan galtzen diranak.

Honek iraungo dau eta ba dau bere esplikazinoa. Urte askotan ezinak sentimentuaren babesera eroan gaitu; ta gure ekintza, progresobidetik galduta dago, lehenagoko oroimene-tan\* (mito bihurtzen diran gomutapenetan loak artuta).

Hortik jatorku dualismo hori. Geure profesino arloetan hain praktikku gareanok, erri ekintzan galduta eta lotura barik gabiz, sarritan aizeari golpeka. Horretara gure nortasuna bata-sun baten preminan dago.

Bere bidea aurkitu ezinik dabilen "satelite" hori, barrero bere orbitara ekarri behar dogu. Izan be, persona batek ezin dau luzaro iraun batasun barik. Erri arazoa, profesino arloan eta geure nortasun bide barruan mamindu behar dogu.

Hona hemen zetara datorren artikulu hau: era askotara jausi leiteke folklorekierian. Behin honezkero ez gara jausiko folklorekieria gorrietan; baina alkartu barik jokatzek, gaurko efikaziak eskatzen deuskun teknika barik jokatzek be fol-klorekeriaren frutu berak dakaz: ezer ez aurreratzea, betiko zuloetan jaustea.

Aurrera egin nahi badogu, geure burua errespetatzen ba-dogu, jo daigun batasunera. Euskalzaindiaren babesean eta gaztediaren indarrean.

ANGEL UGARTEBURU

# Abereak eta Burdinak

## ARRANTZA KONTUAK

### AURTENGO ATUNETEA LARRI DABIL

Garagarriagaz\* asten da atunetako kosterea. Bagilean\* amaituten da bokart\* sasoi; eta amar edo amabost egun igaroten ditue arrantzaleak itsasora\* barik, ontziak garbitu eta atunetarako antolatuten\*: tresna batzuek kendu eta loian\* gorde, beste batzuek hareen lekuan ipini, motorrak, radioak eta abar garbitu eta konpondu.

Kosterearen lehenengo erdia joanda dago. Gaurrarte ez da behar dan beste irabazirik lortu, eta arrantzaleak ez dagoz bapere kontentu.

Galiziako uretara joan behar da atunetan. Eta kosta urrun haretatik, oraindino urrunago joaten dira gure ontziak itsaso barrura: 200, 300 eta 400 itsasmila Atlantiku erdira, egaluzek\* bila.

Aurten leku horreetan arraina oso ugari ikusi dabe; baina halan ta guzti bere, gutxi\* arrapatu. Zegaitik?

Erantzun egokia emotea gatxa izanarren, karnadearen eskastasuna izan leiteke arrazoirik aundiena.

## KARNADEAREN BEHARRIZANA

Ezdago zetan esan behar, sistema hau nahiko nabastua eta konplikadua dala. Baina egaluzek barruratzeko ordua eldu ezker, kanaberek\* gora ta behera asten dira, eta ordu batzuetan kitotu edo ordetu leitekez lau-bost eguneko arazoa eta nekea. Eta oparo egin bere!

Baina ez da amaituten hemen historia arrantzaleentzat.

Karnadea edo arrain txikia ez da edozein lekutan arrapatzen. Itsasoko une berezietan\* aurkituten da. Frantziako kostea da holako bat. Onena izan bere. Galiziako itsasadarrak\* bere, onak dira.

Horrelan, ezer baino lehenago leku horreetara jo behar dabe arrantza ontziak, karnadea egin gura badabe. Eta karnadea eginda gero, atun lekuetara, egaluzek\* bilatzera.

Baina, zoritxarrez, karnada hori lortzea gauza gatxa da, urrengo artikuluan ikusiko dogun legez.

ARTZA



Lekeitio-ko portuan itxasontziak arraintzarako gertu

## ARRANTZA MODU BI

Egaluzetarako sistema bi darabilez arrantzaleak: kazakoa eta pikekoa.

Antzina\*, «kazako» sistemea bakarrik ezagutzen zan. «A la cacea» esaten jako erderaz. Eta sistema honen bidez, ontzia abant doala arrapatzen dira egaluzek, aparexuak botabere-tatik\* ipinita.

Modernuagoa da «pikea» edo biberotako karnada bizia-gaz egiten dan sistemea. Honetarako, ontzi barruan lau-bost ur tanke aundi euki behar dira, eta itsasoko ur hori eten barik barriztu bomba indartsuen bidez. Gero, atunetan ibilteko, arrain txikiz bete behar dira biber horreek. Arrain txikia arrapatu behar lehenago: antxoba, sardina, txitxarro kume eta holakoak; baina antxobea ei da egokiena. Arrain txiki hori saretik biberotara aldatzeko eta biberotetan bizirik iraunazoteko\*, ikaragarritzko arazoak artzen ditue arrantzaleak egunetan eta egunetan, gero arrain txiki horrek amuzki\* bizitzat balioko deutse ta. Hona eldu ezker, kanabera\* laburren bidez egiten da atun arrantzea, ontzi gainetik, moila gainetik bezala\*.

## “BASERRIA NUNDIK NORA”

“Batak bestea ez genduala ezagututen egin genduan amesetan, behin guk biok. Eta alkar maite gendua egia eta zatekeanentz, itzarri egin gintzazan”.

Ez zaitut ezagututen eta amesetan egin dot, zuk lez, ezagututen gareala. Biok maite dogu gauza bat: lurra, baserriko lurra. Azpaldi baten lur hau erriarena izan zan. Gaur? Gure inguruan gauza asko gertatu dira. Industriaren, produksinoaren garaian bizi gara. Lehenago ez zan industri hori gaur lez erreboluzino aundi bat gertatu da; herreri (herrementari) txiki haretatik, familiko okupazino haretatik, gaurko fabrika ezpezializatu horretara aldatu edo irauli da.

Lehen, baserria, herrementari edo fameli-produksinoaren pareko zan. Orain industri horren pareko? Erreboluzino hori albotik pasatu jaku, zirkinik eragin barik. Eta lehenengo eran jarraitzen dogu. Orduan erriaren erantzun eta zerbidu eite-kion. Baina gaur...! Esta okerrago: uste dogu kaleak erabagiko dituela gure problemak. Holan, baserria pinu sartu, edo industriari saldu, eta kalera goaz, fabrikara lanean, konturatu barik adituten ez dogun mundu batek iruntzten gaituala. Gure egin beharra ahaztu eta gure izakera galtzen, gure ez dan izakera baten kanbioan.

Gure eginbeharra baserria erreboluzionatzea izango da; gaur be erriaren zerbitzuan, erriari erantzuten, ipintea. Baina hau gogorra da eta iges egiten dogu. Hauxe da egia, ostera. Ez dozu halan uste, adiskide ezezagun? Azaldu eizuz, eta azaldu daigusan gure uts egite, gure erru, gure eginbehar, gure ibilbideak... Ez daigun bakarrik berba errez egin. “Egia guztiak esan behar ez diranean, erreza da argi berba egitea”.

Gure eginkizuna geure artean erabagi daigun. Gure lurraren geroa gure eskuetan dago. Gu gara gaur, gaurko baserriari erantzun behar deusagunak. Maitasuna entrega, emotea ohi da. Lurra, baserria, egiaz maite badogu, emon gaitezkan baserriari.

NEKAZARIA



# Urretxindorrak Taldearen

## Disko Barria

### AURRESKU KANTATUA, LEHENENGOZ DISKOTAN

Nok ez ditu ezagutzen gaur Bergara-ko Urretxindorrak euskaldun konjuntu famatua?  
Euren lehenengo diskoak izugarritzko arrera ona euki eban, lau kanta sonatuekin:

*Aitorren izkuntza zaharra.*  
*Anoushtka.*  
*Gurdi ardatzik.*  
*Mundu bideak.*

Eta horain euren bigarren diskoa gertu dago, dendetara eroateko. Zuek ANAITASUNA hau eskuetan daukazue-  
nean, seguru asko edozein dendatan aurkitu zeinkeela.

Disko barri hau «single» bat da, hau da, kanta biko; ta bere prexioa 75 peseta dira.

Disko honek alde bakoitzetik kanta bat dauka, ta hemen jarraian daukazuez kanta bien itzak.

### AURRESKU

Aurresku izan degu beti  
euskotarren dantza,  
gure asaben izatearen  
erakusgarri.  
Dantza garbi, sail,  
osasun erakusgarri.  
Bai aupa hi, ta aupa ni,  
danearen ikusgarri.  
Jantzi zuri, gerriz gorri,  
hostro\* berdearen azpian,  
geure besoak zabaldurik,  
gurutze zuria eginaz.  
Agur hiri, neure aitziko lagun horri,  
agur zuri,  
agur hari,  
agur ikusle guzioi.

### AITA BARIK

Alarguna bizi zan,  
etxe zahar batean,  
hautxoa\* zedukala\* lagun bakarrikan.  
Lo egiteko, semea usten zuan lurrin,  
ez baitzuen\* gaixoak ohe hoberikan.  
Gero alargun bera  
haurraren ondoan,  
hotsez hil etzekion,  
etzanik jartzen zan.  
Non nahitik lapurrak etxean sartzen ziran  
ta laster utzi zuten etxea soilikan.  
Horregatik bi hoek zetzazen\* lur otsan,  
etzutelako beste leku hoberikan.  
Alaz ere bularrak  
esnetsu zituan amak,  
ta haurrak\* esnea

edozkitzen\* zuan.  
Gaitzak ez omen dira metaka baizikan  
guregana heldutzen, da horregatikan  
adizu, irakurlea, orain darraikeyan  
gertari izugarria guztien artean:  
Sugea ixil geldi  
gabero igotzen zan  
ta inoren beldur gabe  
sartzen zan erdian.  
Andre bularrak gero bilatzen zituan,  
ta goxo goxo biok uste ondorenean,  
handik irtenda, berriz sartzen zan zuloan.

Kanta eizue, ba, aureskua URRETXINDORAKaz batean.  
Argitaratzailea: C I N S A , BILBAO

## CINSA.-Bilbao

Inoiz uste izango ez zenduana... Euskal Erriari entzute aundia emon eutson aldizkari bat barriro argitaratuko da. Bere denboran urten eban legez, bardi

n bardin urtengo dau aurkibide ederrakaz orniduta. Edizinoaren aleak ez dira asko izango. Hona hemen aldizkari horren izena:

# Revista Internacional de Estudios Vascos

Ogetabost tomo eder eukiko ditu (ageru dira lau), narruzkoak; eta euren formatua, "La Gran Enciclopedia Vasca"-k argitaratutako *Historias de Vizcaya y Guipúzcoa* liburuen antzekoa izango da.

Bere denboran aldizkari honek fama aundia lortu eban jakintzaren aldetik; eta bere ale zaharrak salgai egon diranean, izugarritzko diru piloagaz erosi dira. Orain ale barriak, merke eta epetan eskuratu zeinkez.

## GIZON OSPETSUEN LAUDORIOAK

Aldizkari honek, alabantzarik aundienak artu izan ditu mundu guztiko jakintzalarien aldetik. Julio de Urkioxok fundatu eban, eta 1922-tik 1936-rarte Sociedad de Estudios Vascos elektartearen publikazioa izan zan.

Hona hemen, jakitun batzuen eritxiak: "Aldizkari hau artxibu ugari bat da; eta asko balio izan dau, mundu guztiko euskal zaleak alkartzeko, eta euskerazko idaz lan topagatxak danon eskuetan ipinteko" "Vicente Garcia De Diegok, Real Academia de la Lengua Española-ko Vizepresidentea).

A. Mailet, Frantziako filologo ta orientalista ospetsuaren ustez, "Aldizkari honek benetako barrizkuntzea emon deutso euskal ikaskintzeari".

Marcelino Menendez Pelayok, danok eza gutzen dogun Espainiako Jakitun aundiak, zorionak bidaldu eutsazan aldizkariari, eta "bardin egin vehar leukee —esaten eban bere idazkian— kultura historikua maite dabene guztiak. Publikazio hau guztiz baliotsua da jakintzearen aldetik, eta zuzenbide segurua ta sendo bat emoten deutse euskal arlo honetan lan egiten dabenei".

F. Arozenak, orain askoz dala, idaz lan eder bat argitaratu eban, Julio de Urkioxoren omenez idatzitako liburu baten. Idazlan horretatik atera doguz, goian aipaturiko laudorioak. Bere aldetik dino Fausto Arozenak aldizkari honeri ezin leiskiola inok kendu naguzitasuna euskal jakintzan.

Azkenik, eta larregi luzatu ez gaitezan, bere denboran Frantziako historialari ospetsuenaz izan zanaren eritxia azalduko dogu. Bere ustez, aldizkari hau munduko baliotsuenetarikoa da, bere artikuluen kalidade ta ugaritasunagaitik; eta munduko jakitun guztiak euren laguntasunik aundiena emon behar leuskioe (Camille Jullian, "Revue des Etudes Anciennes" (1907).

## ALDIZKARIAREN INTERNAZIONALTASUNA

"Revista Internacional de Estudios Vascos" aldizkariaren, Frantzia, Alemania, Ingalaterra, Rusia, Italia, ta Espainiako idazleak agertzen dira. Munduko intelektualik onenak parte artu eban bertan; eta horregaitik, aldizkaria, izenez eta izanez benetan izan zan internazionala.

Idazleen artean aipatu lejtekez urrenogak: Camille Jullian, P. A. Mailet, Conde de Charencey, Saroihandy, Julien Vinson, Georges Herelle, Albert Leon, Jean Jaurgain, Daranatz, Dubarat, Georges Lacombe, Hugo Schuchardt (munduko izkuntzalarien artean ospetsuenetarikoa), Th. Linschmann, H. Winkler, N. Marr, G. Kolowrat, Rodolfo Goutmann, Guillermo Meyer-Lübke, B. Faddegor, Edwuar Spencer, Carmelo de Echegaray, Arturo Campion, Domingo de Aguirre, Serapio Mugica, Telesforo Aranzadi (europa osoan entzute

aundiko antropologo ta etnologoa), Justo Garate, Alford, Bähr, Bouda, Bourgoing, Desdevizes, Farinelli, Giese, Minvielle, Schulten, Menendez Pidal, Göuld, Gleig, etab. etab.

## FABOREZKO SUSKRIZINOAK

Kontuan euki doguz: obra honen aunditasuna (25 tomo, aldizkariaren 30 urteak artzen dituenak), bere prezio osoa eta irakurleen interesa. Horregaitik ahalegin aundia egin dogu, ahal danik erraztasun gehien erolei emoteko. Il honetan (irailan) suskribitzen diranei erregalatu egin deutseguz azkenengo zortzi tomoak. Tomo bakoitzak 800 peseta balioko dau, kalera urtenda gero; eta 655 peseta, kalera urten orduko.

Il honetan (irailan) suskribitzen diranak, dohan artuko ditue azkenengo zortzi tomoak; eta holan kolezino osoko tomo bakoitzak prezio erdian urtengo deutse.

- HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE VIZCAYA, Labayru-rena. 3 Tomo (bi agertu barik). Salneurria: 800 peseta tomoko. Bibliofiloarentzat, 1090 peseta. (Azken era honetara gura bada, X ipini beharrean, B ipini).
- NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA, Gorozabel eta Etxegaray-rena. 3 tomatan, 600 peseta bakoitza. Bibliofiloarentzat 1090.
- CANCIONERO POPULAR VASCO, Azcua-rena. Tomo bitan. 640 peseta bakoitza. Bibliofiloarentzat 1090.
- DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO ILUSTRADO DEL PAIS VASCO, Real Academia de la Historia-rena. Tomo bitan, 640 peseta bakoitza. Bibliofiloarentzat 1090.
- LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA, 5 tomatan. (2 agertu barik). 800 peseta bakoitza. Bibliofiloarentzat 1090.
- REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS, 25 tomatan (21 agertu barik). Narruzko liburuetan erregalaturik. (8 azkenengo tomoak erregalatu egingo dira). Tomo bakoitza 640 peseta.
- DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES, Azcua-rena. Tomo bitan, agertu barik; fibradun paperetan. 700 peseta tomoko.
- ANALES DEL REINO DE NAVARRA, Moret eta Aleson-ena, 6 tomatan, agertu barik. Fibradun narruz, ita goiko ertza urreduna. 833 peseta tomoko.
- HISTORIA DEL ATHLETIC DE BILBAO, «CASO UNICO EN EL FUTBOL MUNDIAL» («L'Equipe»), formatu aundia, couché, milaka fotografia, diskoagaz.
- COLECCION DE BOLSILLO LIBROS VASCOS, 25 tomo (13 agertu barik). Fibradun paperetan eta ertz irredunak; 250 peseta tomoko (ipini Z). Edizino merkeagoa, 125 peseta tomoko (ipini X).
- LUMEEENTZAKO IPUJINIK EDERRENAK, kolore guztiekin apainduak. 25 ale, 20 peseta bakoitza.
- PELICULA HUMORISTICA DE UN PARTIDO DE CESTA PUNTA, 16 postal kolorerik politenakaz, plastikuz naturik. 64 peseta. Ikusi dozuzan salneurrik gehienok 100-eko 20 bat igongo dabe il honen azkenetik asita.

Eguna.

Izenpetu.

Ebazi ta bidaldu eizu Boletin hau Bilbo-ra, 1510 apartadura

Izena ta apilidua .....

Ogibide ta profesioa .....

Ofizino telefonoa .....

Etxea .....

Etxeko telefonoa .....

Erria .....

Errialdea .....

Bidaldu

bidazu

Tomak artzean, kontrareenboloz  
liero 320 pesetaka .....

tokatzen dan kuadroan  
X bat ipini eizu

# ABERASTU ZURE EUSKEREA

Hona hemen, zenbaki honetan izartxo bategaz agertzen diran berba jakingarri batzuek.

## BIZKAIERAZKOAK

AMUZKI, amuan ipinten dan janaria.  
 BAGIL, *junto*.  
 BAITEBAN, bait eban, eban eta.  
 BEHINEN, printzipalena.  
 BOKART, antxoba.  
 BOTABERA, arrantzarako aga luzea, eskuz erabilten ez dana.  
 EGALUZE, atun klasea, *bonito*.  
 ELERTI, *literatura* (berba barria).  
 ESNATU, iratzarri.  
 EHUNDAZAK, ehun eta gehiago.  
 EUSKALKI, euskerazko dialektua.  
 GARAGARRIL, *julio*.  
 GIZARTE, *sociedad* (berba barria).  
 IRAUNAZO, iraun erazo, *hacer durar*.  
 TTSASADAR, erderazko, *ria*.  
 KONDAIRA, historia.  
 LOIA, arrantzaleen tresnak gordeteko tokia, *lonja*.  
 OSTERA, barriz  
 URI, erri. *Berneoko uria*.  
 URIBURU, uri nagusia, *capital*.

## EUSKERA BATERATUKOAK

AIPATU, aitatu.  
 AITORLE, autorle.  
 ANTOLATU, eratu, atondu, organizatu.  
 ARI IZAN, jardun.  
 ATERA, atara.  
 HAUR, ume.  
 BAITA, bait da, da ta.  
 BAITZUEN, bait zuen, eban eta.  
 BAKOTZ, *bakotz*.  
 BERAZ, nori dala ta, horregaitik, *por consiguiente*.  
 BEREZL, aparteko, espezial.  
 BEZALA, bezela, legez, lez.  
 BEZALAXE, bezelaxe, legetxe, letxe.  
 BILDU, batu.  
 DAGOKION, jagokon.  
 DEITURA, abizen, *apellido*.  
 DENBORA, denpora.  
 DOHAI, dohe, grazia.  
 ELIZA, eleiza.  
 ETSAI, arerio, kontrario.  
 ETSAIGO, areriotasun.  
 FINKATU, sustraitu, *afianzar, fijar*.  
 GUTXI, gitxi.  
 ITSASO, itxaso.  
 IZKUTATU, ezkutatu.  
 JENDE, jente.  
 KANABERA, kainabera.  
 MOTA, mueta, klase.  
 OIHU, aldarri, garrasi.  
 ORE, ogia egiteko urun masea.  
 XEHETASUN, zehetasun, *detalle*.  
 ZAIL, gatx.  
 ZEDUKAN, zeukan, eukan.  
 ZIN EGIN, erderazko, *jurar*.  
 ZUTIK, zutunik.

## BESTE EUSKALKIETAKOAK

ANTZINA, antxina.  
 BUKATU, amaitu, akabatu.  
 EDADURA, zabaltasun, *zabalera*.  
 EDOSKI, titia artu, *mamar*.  
 EGUNKARI, eguneroko aldizkaria.  
 GALDERA, itaun, *preguntia*.  
 IRAULTZAILLE, erreboluzionario.  
 JADANIK, erderazko, *ya*.  
 LARRI, aundi.  
 NAHASMEN, nahaste.  
 NOSKI, aurki, urrean, nonbait, *seguramente*.  
 ORANTZA, txantxadura, lebadura.  
 OROIMEN, oroitzapen, gomutapen.  
 HOSTRO, hosto, orri.  
 ZETZAZEN, etzaten ziran, etzanda egozan.



**IMPRENTA IDEAL**

idazkirik  
onenen



serbitzurako  
irarkola

Plaza de Bengoeche, 70

Teléfono prov. 300

**GALDACANO** (Vizcaya)

## FUNCOR S. C. I.

Gaurko baserritarrak bear dituan  
MAKINAK

**Trituradora—Errota—Naastale  
Zerra—Uruga—Uraska**

Europako aurrerapenik onenak  
emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (TEL. 114)

## ANAITASUNA

Amabosteroko aldizkaria

ANAITASUNA-k aurrera egin daian gura ba-  
dozu, zeuk bere lagundu egin behar dozu.  
Egin suskrizinoak, bialdu albisteak, Kritikak et.  
a.

SUSKRIZINO TXANTELA

IZENA TA DEITURA.....

KALEA EDO BIZI-TOKIA .....

ERRIA .....

Urteko ordainbharra: 100 peseta

# ● ● ● EZAGUTU GURE ERRIA

Guk eskualde bat osotzean, sei gauza bertako gizarte arazorik larrienak\* kontuan daukaguz:

J. L. L.-K

Orri honen zera, gure erriaren dibulgazio ezagutze bat emotea izango da. Erriz erri ezin dogu emon, Euskal Erri guztian zazpireun inguru diralako; zazpi ataletan azalegi gelditzen jaku. Erdi bide bat artzen dogu, eskualdeka, komarkaka emotea. Irurogeira ez dira eltzen. Urte bitan danak emoteko moduan.

## ESKUALDE BERBEA

Eskualdea bestaldean, Bidasoaz handik, orain bere erabilten dan berbea da. «Garazi eskualdekoa naiz» esaten dabe. Beraz\*, ez da neologismu bat, ez eta arkaismu bat, berba bizi bat baino. Gehiago oraindik, euskal idazkaritzak eraturako Baiona-ko batzarrean «komarka» berbea, euskera batuan eskualdea erabiltzea erabagi zan. Behar genduan holako preziziodun erabagi bat artzea.

«Herrialde» beste gauza baterako itxi zan, eta gauzak ganoraz egiteko itxi behar dogu, Bizkai, Araba edo holakoak adierazoteko. «Ballera», besterik ez egoalakoan edo «Erri Gaztedik» zori txarrez hemen zabalduko berba bat da. Erderatik etorritako, ta gipuzkoarkeria batetik kanpo, beraz\*, euskera batuaren kontra, geografia zizentzia zer dan ez jakitea da. Baztuetan «ballera», «valle» edo obeto esanda «aran» eta eskualdea gauza bera izango dira, geografu batentzat. «Enkartazioak» eskualde bat dira, baina lau edo bost bailera. Leintze, oster\*, (Leniz) bailera bat eta eskualde bat da. «Erridi» berbea, faltarik egiten ez eban neologismu bat da, abizenaren antzera, zertan sortu ez egoana, bestaldean jatorragoa eta errikoia egozalako ta dagozalako: eskualdea eta deitura\*.

Puntu hau amaitzeko, hemendik aurre «komarka» adierazoteko, **ESKUALDEA** bakarrik erabiliko dogu, batasunaren eta geografia jakintzaren izenean.

## ESKUALDEA ZER DAN

Jordi Dalmau-k esaten deusku eskualdea sintesi aundi dala. Sintesizatzeke elementu honeek behar dituala: kondaira\*, ekonomia, lur konkretu bateko gizadia, artu-emonak... Dino: «La comarca es una visió sintética d'unitats». Ondo esanda hauxe, unidade horreek erriak dira batik bat.

1) Historia, ez beti berari itsuan jarraitzeko, gure erria zelan eratuta egoan jakiteko baino, ta bertatik gaurkorako planteamentu bat egiteko.

2) Lurra, batez bere mendi lurraldeetan «aranak» zerikusi aundia dauke.

3) Giza izakera, folklorea, euskalkia\*, jantzikera, giza tippuak...

4) Giza ekonomia, bidekotasuna.

5) Bide estruktura: tren bide, auto bide, galtzada et. a., baina ez absolututzat artuta, ze erriarentzako eginda ez dagoz asko ta.

6) Urigintza (urbanismo), gaur gehien begiratu behar jakona, bera ez dalako kaleak nundik joan behar daben esaten dauana bakarrik, gizarte\*, ekonomia, bide, ur ta beste arazo askoren uri\* planifikatze bat dalako, ta munduko toki askotan, ta Bizkaian bere bai, eskualde osoaren planifikatzea. Urigintza politikoaren arloa da, ta baita soziologu, ekonomista, ingeneru, geografu ta arkitektoena bere.

Osoatzean puntu horreek kontuan euki baditugu, izenak aukeratzean besteok:

1) Gure eskualdeak izen historikoak daukezala, edo eukezala.

2) Eskualdeak, gauza kolektibu bat danetik, baten izena ezin dauala eroan uriburua\* bada bere.

3) Mundu guztiko jokera bat bere ba dagoala: ibaien izenak artzea, kolektibu izenentzako.

4) Gure erria besteraturata dagoanez, izenetan be desalienazino bat behar dau: Busturia esan eta ez «gernikesado»; Iruña ta ez Panplona.

## GURE ASMOA

Sartaldetik asi ta Sortaldera azalduko doguz eskualdeak, «Enkartazioetatik» asi eta Pettarrand (Basse Soule) amaitu. Ezkerretik eskumara, ta goitik behera. Saiatuko gara historia labur bat emoten, ekonomia arazo batzuek, izkuntzarena, demografia, arte aberastasuna, ta, batez bere

Gure lana saiakera bat danetik, kritika baten baharizenean dago. Beto ba ordu onean xehetasunik\* ugarienakin, ze usteak alde batera itxita, datu ziurrekin orniduta egin behar dogu gure kultura.

## BIZKAIKO LUR GALDUAK

Bizkaiko bere Sartaldeak lurralde batzuek lehen bereak ziranak, era batera edo bestera, orain inoren eskuetan daukoz. Ez goaz azaltzen Moneo-ko Aforado-ak eta Ason ibaitik Trasmiera-ko Merindade aldeko erri batzuen Bizkaitasuna, oso urria agertzen bait jaku bai kondaira aldetik, bai toponimia aldetik ta baita etnologia aldetik bere. Baina bai, Mena Aran-eko ta Ason-en eskualdeko erriak, horreetan ziurtasun gehiago daukagulako.

Urrengoan, ba, **BIZKAIKO LUR GALDUAK** aipatuaz jarraituko dogu.

## Diccionario VASCO-ESPAÑOL - FRANCES

**Azkue**-rena.

Tomu bitan, agertu barik; fibradun paperetan  
700 peseta tomoko.

Eskatu Bilbora, 1510 apartadura

## OHAR BAT

Aldizkari honek idazkera aldetik arau batzuek ipinita daukaz, ta beti beteazoko ditu. Beraz\*, arau honein jabe egin nahi badozu, ez daukazu idazkera honetara eskatu baino besterik, behingoan izango dozuz zure eskuetan eta.

Noizean behin «euskera batuan» bere zerbait agertuko dogu, Euskaltzaindiaren gurariari jarraituz.